

Haur eta Gazte Literatura Eskolan Jardunaldiak,
Esperientziak partekatzen

Noiz: 2022ko urriaren 1a

Non: EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultateko I Eraikineko Gradu Aretoan

Ordutegia: 09:30-14:30

Egitura:

9:30: Aurkezpena

10:00: Komunikazioak

- **Nora Uribetxeberria.** HHko esperientziak Iruñerriko Ikastolan berregiten ari diren Irakurketa Plana oinarri, eta HGL Eskolan ikastaroaren gainekoak. (15-20')
- **Mirentxu Ibargarai.** LHko irakaslea da, Sehaskan HGL esparrua kudeatzen du. Mugaz beste aldeko ikuspegia ekarriko du, baita "HGL Eskolan" ikastaroaren esperientziatik abiatuta ikasturte honetan irakasleei HGLren gainean eskainiko dieten formakuntzaren gaineko zertzeladak ere bai, formakuntza eta haren jarraipena egingo dute. (15-20')
- **Junkal Lertxundi.** Ikaslekarreko KIMU proiektuko Euskara eta Literatura materialaren sortzailea. Ikastaroari esker material hori nola aberastu duten eta sortu dituzten elkarlanen berri emango du. (15-20')

11:00-11:30: Kafea

- **Larraitz Uria.** Bibliotekaria Deustuko Unibertsitatean. Haur-literatura txokoa sortu nahi du helduen liburutegian irakaslegaei HGLren inguruko ezagutzak zabaltzeko. (15-20')
- **David Bilbao. DBHko irakaslea.** Ikasleekin HGL Eskolan ikastaroaren lehenengo edizioa egin ostean egin dituen bi praktika azalduko ditu. *Oiankomik:* Eskola liburutegiko komikiak irakurri, iruzkindu eta partekatzea proposatzen zuen proiektua. *Irakurketaren egunerokoa:* Irakurketa lantzeko proposamena Oliver Twist eleberria kontuan hartuta. (15-20')
- **Asun Agiriano.** Ikastaroaren arduradun akademikoa izandakoa da. Agirianok ikasleekin batera Mariasun Landak eskatutako idazketa-ariketa egin zuen. Ariketa hartatik ateratako lana album ilustratu bihurtu du eta Elkar argitaletxeak argitaratuko du. (15-20')
- **Lorea Unamuno.** Irakaslea da EHU (Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia Masterra ditu). Diziplinartekotasuna, garapen iraunkorreko helburuak eta metodologia berritzaileak bultzatzen dituen *Hitzak eta irudiak* proiektua egikaritzen ari dira irakaslegaeiek kontakizun

fisiko bat sortu eta sormen-prozesu horretan idatzizko eta ikusizko komunikazioan trebatu nahi dituzte. (15-20')

12:50-13:00 Etena

13:00: Lan-mahaiak

1. HHko irakasleen esperientziak
2. LHko irakasleen esperientziak.
3. DBHko irakasleen esperientziak.
4. Haur eta gazte literatura eta euskararen biziberritzea
5. Liburutegiak eta EHGL
6. Sormenetik: sortzaileak, egileak, argitaldariak.

13:45-14:30: Ondorioak partekatu eta amaiera.